

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 3,57 milioi euro inbertituko ditu Lodosako osasun-zentroa eraikitzeko

Proiektuan barne hartzen da azkenean eraitsiko duten gaur egungo eraikina inguratuko duten "L" formako bi eraikin eraikitzea, zentroaren jarduera eten gabe

Asteazkena, 2017.eko maiatzak 10

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran erabaki du Lodosan osasun-zentro berri bat eraikitzeko 3,57 milioi euroko lanen lizitazioa baimentzea.

Dagoeneko 2008. urtean herriak osasun-zentro berri bat zuela jabetu zen, eta eraikuntza-proiektua kontratatu zuen. Hala ere, finantzazio-zailtasunak direla eta, proiektua ezin izan zen gauzatu, baina Foru Gobernuak berriro ekin dio horri.

Gune berria "L" formako bi eraikinez osatuta egongo da, erdian patio bat izanda, eta elkarren artean lotuta egongo dira. Gaur egungo osasun-zentroaren inguruan eraikiko dira, eta gaur egungoa azkenean eraitsiko dute. Lanak bi faseetan garatuko dira, eta ez da zentroaren jarduera inola ere eten beharko.

Eraikuntza-proiektuan lau eremu barne hartzen dira: laguntza-eremua: kontsulta orokorrak, larrialdiak, errehabilitazioa, emakumearen arretarako zentroa, itxarongelak eta komunak; langileen eremua: zuzendaritzarako bulegoak, liburutegia, logelak eta aldagelak; harrera eremua: harrera-lekua eta artxiiboak; eta instalazioen eta biltegiaren eremua.

Osasun-zentro berriaren azalera erabilgarri osoa 1.436,42 metro karratukoa izango da, bi solairuetan banatuta: beheko solairua, 1.228,62 metro karratukoa, eta lehenengo solairua, 207,80 metro karratukoa.

Eraikitako azalera osoa 1.612,95 metro karratukoa izango da eta 2.999,21 metro karratuko lursail batean kokatuko da. Eraikinak, patioa barne, 1.743,11 metroko azalera osoa izango du, eta eraikinaren kanpoaldeko azalera librea 1.256,10 metro karratukoa izango da.

Lehen fasea

Lanen lehen fasean "L" formako bloke bat eraikiko da gaur egungo



Kontsulta mediko baten irudia.

osasan-zentroaren inguruan. Lan horiek egin aurretik eraikina neoprenozko olanekin babestu beharko da lanei begira dauden fatxadetan.

Xede horretarako, lehen faseko orubearen perimetroan hesiak jarriko dira, eta antzinako eraikinarekiko paralelo dagoen euste-horma bat eraikiko da, berria eraikitzen den bitartean haren egonkortasuna bermatzeko. Eraikin horretan, eremu hauek egongo dira: harrera, larrialdietako kontsultak eta kontsulta orokorrak eta langileen bulegoak lehen solairuan.

Lanak eta kanpo urbanizazioa amaitutakoan, antzinako eraikinaren erabilerak berrira eramango dira. Lehen fasea abian jarri ondoren, antzinako eraikinean hesiak jarriko dira eta berria babestuko dute, DM taulen eta olanen bidez, proiektuan nagusiki beirazko fatxadak erabiltzea jasotzen delako.

Bigarren fasea

Lanen bigarren fasean gaur egungo eraikina eraistea eta "L" formako beste bat eraikitzea jasotzen da. Aurrekoari lotuko zaio, erdiko patio bat duen karratu bat osatuz. Bigarren fase honetan, errehabilitazio-kontsultak eta emakumearen arretarako zentroa egingo dira. Azken urratsa bi eraikinak lotzea izango da, Osasun Zentro osoa abian jarri arte.

Adierazi denez, aurreikuspenen arabera ez da etengo osasan-zentroaren jarduera, beraz, eraispena eta eraikitzea hauts eta zarata igorpenak gehien mugatzen dituzten neurriak hartuz egingo dira.

Plangintza ekonomikoa

Lanetarako aurreikusitako plangintza ekonomikoak 809.000 euro baino gehiagoko gastua barne hartzen du 2017. urtean; 2,37 milioi eurokoa 2018an eta 390.000 euro baino zertxobait gehiago 2019an. Lanak esleitzeko, erkidegoko publizitaterik gabeko prozedura irekia ezarri da.

Obra-zuzendaritza, obra gauzatzeko zuzendaritza eta egikaritze-proiektuaren segurtasun eta osasun koordinazioak 5.505,50 euroko gehikuntza ekarri dute 2009. urtean onartutako proiektuaren aldean.

Lodosako Oinarrizko Eremuan 10.861 pertsona artatzen dira. Osasun-zentroa dagoen gaur egungo eraikinak 603 metro koadroko azalera du. 2000. urtean berritu zen azken aldiz, eta horren bidez, Emakumearen Arretarako Zentroa nahiz Harrera-eremua handitu ziren.